

1.UNITATE DIDAKTIKOA: ELORDI			
INPLIKATUTAKO ARLOAK: Natura, Gizartea eta Kultura Ingurumenaren ezagutza			
GAIA: Ingurumenaren zaintza eta ur kontsumo arrazionala		MAILA: LH 5-6	SAIO KOPURUA: 2 -Lehenengoa Txingudiko Zerbitzuetako hezitzailearen eskutik. Bigarrena ikastetxeko ur kontsumo diagnostikoa egitea.
IKAS-EGOERAREN MARKOA			
Testuingurua: Bidasoa Beherea Gipuzkoako eskualderik euritsuena da eta horregatik zorioneko sentitu gaitzke. Urak bere ibilbidean ziklo bat osatzen du eta hori zaintzea garrantzitsua da. Ura egunerokotasunean erabiltzen dugun baliabidea da eta horretarako ura biltzeko urtegiak sortzen dira, hodiak ondoren garraiatzeko eta instalazioak garbitzeko.			
Abiapuntua: Elordiko edateko uren tratamendurako planta 1996tik abian da Irun eta Hondarribiko biztanleei ur edangarria eskaintzeko. Instalazioak gaur egungo biztanleriaren beharrak asetzeko gaitasuna duen arren, aldaketa klimatikoak sor ditzakeen lehorteek eta populazioaren igoerak etorkizun labor batean egoera kritiko baten aurrean aurkitzea eragin diezaguke.		Azken ekoizpena: Modu efiziente batean erabiltzen al da ura ikastetxean? Ikastetxeko egoeraren diagnostiko bat egin. Nola txorrotak daude komunetan? Ura alferrik galtzen al da? Urarekin jolasten al da? Behatu, aztertu eta konponbideak jarri!	
PROPOSAMENAREN JUSTIFIKAZIOA			
Biztanleriaren gorakadak eta aldaketa klimatikoaren ondorioek etorkizun labor batean ur eskariaren beharra handituko dute. Urtegi zein instalazio berriak egiteak ingurumen inpaktu zein ekonomiko handiak ditu. Erabaki horiek hartu aurretik gure esku dago alternatibak sortzea, edota gure ohiturak aldatzea.			
Funtsezko konpetentziak: STEM eta HK			
Deskriptore operatiboak	Konpetentzia espezifikoak	Ebaluazio-irizpideak	Oinarrizko jakintzak
STEM5. Osasuna eta ingurumena babesteko zientifikoki oinarritutako ekintzetan parte hartzen du, proposamenak eginez eta kontsumo arduratsuaren praktikan etika eta segurtasun printzipioak aplikatuz. HK4. Giza ekintzen eta ingurunearen arteko harreman sistemikoak ulertzen ditu, eta bizi-ohitura iraunkorrak hartzen hasten da, biodibertsitatea kontserbatzen laguntzeko, tokiko ikuspegitik zein ikuspegi globaletik.	5. Natura, gizarte eta kultura ingurune elementu edo sistemen ezaugarriak identifikatzea eta aztertzea, eta horien antolamendua eta propietateak deskribatzea, eta haien arteko harremanak ezartzea, kultura eta natura ondarearen balioa ezagutzeko eta hura kontserbatzeko eta hobetzeko ekintzei ekiteko, erabilera arduratsu eta iraunkor baten bidez. 6.Gizakiak ingurunean egiten duen esku-hartzearen kausak eta ondorioak kritikoki aztertzea, maila soziala, ekonomikoa, kulturala eta ekologikoa integratuz eta pertsonen eta planetaren errespetuarekin, zaintzarekin eta babesarekin kontsekuenteak diren ohitura iraunkorrak praktikan jarritz, arazoei aurre egiteko,	5.2. Natura-, gizarte- eta kultura ingurune elementuen arteko konexio errazak egitea, eta elementu horien artean sortzen diren harremanak ulertzea. 5.4. Natura- eta kultura-ondarea kontserbatzeko eta hobetzeko jarrerak balioestea, babestea eta erakustea, iraunkortasunaren aldeko konpromisoak eta jokabideak islatzen dituzten proposamen eta ekintzen bidez. 6.1. Giza interakzioaren kausak eta ingurunean dituen ondorioak kritikoki aztertzea, alderdi soziala, ekonomikoa, kulturala, teknologikoa eta ekologikoa integratuta, eta problemak identifikatuta. Bizitza jasangarriaren kontzientzia transferitzea, planetak dituen arazoentzako irtenbideak bilatzeko eta bere ingurunean	C. Gizarteak eta lurraldeak 4.Kontzientzia ekosoziala -Gure ingurunea ezagutzea. Paisaia naturalak eta paisaia gizatiartuak, eta horien elementuak. Ingurunearen gaineko giza ekintza eta horren ondorioak. -Erantzukizun ekosoziala. Ondasun komunak kontserbatzeko, hobetzeko eta modu jasangarrian erabiltzeko ekintzak. -Bizi ohitura jasangarriak. Uraren erabilera.

	konponbideak bilatzeko eta konponbidean banaka eta elkarlanean jarduteko gaitasuna garatzeko.	jendaurrean jakinarazteko. 6.2. Jarrera ekintzailea erakustea arazo ekosozialei aurre egiteko proposamenak bilatu, kontrastatu eta ebaluatzean, banaka eta taldean soluzio arrazoituak emanda.	
HELBURU DIDAKTIKOAK			
1. 2. (...)			
METODOLOGIA			
Printzipioak		Antolakuntza	
		Baliabideak	
EBALUAZIOA			
Ebaluazio prozesua:			
Ebaluazio adierazleak:			
1. 2. (...)			
Ebaluazio modalitatea:		Ebaluazio tresnak:	